



Bisita birtuala WEBgunean: Instalazioak

Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza eta Batxilerra

2

Lauvo

1. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

1.1. ESKOLA EGUTEGIA

Irailak	7	Ikasturte hasiera DBH eta Batxilergo
Urriak	12	El Pilar jai eguna
Azaroak	1-2	Domu Santu jai-eguna eta zubia
Abenduak	6-7	Konstituzio jai-eguna eta zubia
Abenduak	21	Azken klase eguna Gabonetako opor aurretik
Urtarrilak	7	Lehen klase eguna Gabonetako opor ostean
Martxoak	4	Inauterietako gai-eguna
Martxoak	18-19	Zubia eta San Jose jai-eguna
Apirilak	12	Azken klase eguna Aste Santu opor aurretik
Apirilak	29	Lehen klase eguna Aste Santu opor ostean
Maiatzak	1	Lanaren jai-eguna
Maiatzak	6	Ohiko klaseen azken eguna 2. batxilergoan
Maiatzak	24	Ohiko klaseen azken eguna 1. batxilergoan
Ekainak	12	Ez da lektiboa (ebaluazio eguna)
Ekainak	13-20	Gaiztatu dutenentzako jardura bereziak
Ekainak	20	Klase azken eguna DBH eta Batxiler

1.2. JARDUERA BEREZIETAKO EGUNAK

Irailak	7-10	Testu-liburuaren banaketa
Irailak	Iragarriko da	Ikasleen urtekarirako argazkia
Otsaila	Aldakorra	Kooperatibaren Batzar Nagusia
Maiatzak	17	XLI. promozioaren agurra

1.3. BESTE BATZUK

• Ospakizunak

Abenduak	1	Xabierreko Frantsizko Deuna, Ikastolako jai. Euskararen Eguna. SFX jaialdia DBHn
Aldakorra		Lauroko jai* Informatuko da

* DBH 4. mailako ikasleek eta euren familiek jai antolatzen dute. Ikasleek laguntza ekonomikoa hartzen dute eskola-ibilbidearen amaiera bidaiarako.



• Hizkuntza truke eta egonaldiak:

- Udako egonaldiak: ekaina eta uztailean, Ingalaterra, Irlanda, AEB eta Frantzia. Programak otsailean bidaliko dira.
- Hiruhilekoa Kanadan: DBH 3rako. Familian egonaldia eta Institutura joatea, irailetik azarora.
- Trukea Frantzian: astebeteko egonaldia. DBH 3ko Frantses aukerako ikasleak.
- Hazparne: astebeteko trukea Ursuia ikastetxearekin, DBH 1eko ikasleentzat.



• Giza-ekintzak:

Hiru hileko kanpainiak:

- Janari bilketa.
- Arropa-bilketa.
- Nigerrerako tantak, UNICEF. Uraren Nazioarteko Eguna



1.4. EBALUAZIO TXOSTENAK

• DBH

Urriak	26	Ebaluazio erdia
Abenduak	10	1. ebaluaketako txostenak argitaratu
Urtarrila	25	Ebaluazio erdia
Martxoak	8	2. ebaluaketako txostenak argitaratu
Maiatza	10	Ebaluazio erdia
Ekainak	12	Azken notak WEBean argitaratu (klase gabeko eguna)
Ekainak	13-20	Gainditu duten ikasleentzat proiektu bereziak
Ekainak	21-24	Ez-ohiko deialdiko azterketak
Ekainak	25	Ez ohiko deialdiko notak WEBean

• 1. Batxiler

Urriak	19	Ebaluazio erdia
Azaroak	23	1. ebaluaketako txostenak familiei
Enero	11	Ebaluazio erdia
Otsailak	15	2. ebaluaketako txostenak familiei
Martxoa	29	Ebaluazio erdia
Maiatzak	24	3. ebaluaketako txostena
Maiatza/Ekaina	27-3	Froga gehigarriak
Ekainak	4	Azken emaitzak WEBean
Ekainak	5-18	Ez-ohiko deialdiko prestaketa (ekainak 12, klase gabe)
Ekainak	19-20-21	Ez-ohiko deialdiko azterketak
Ekainak	24	Ez ohiko deialdiko emaitzak



• 2. Batxiler

Urriak	19	Ebaluazio erdia
Azaroak	23	1. ebaluaketako txostenak familiei
Urtarrilak	11	Ebaluazio erdia
Otsailak	15	2. ebaluaketako txostenak familiei
Martxoa	29	Ebaluazio erdia
Maiatzak	6	3. ebaluaketako txostena
Maiatzak	7-17	Azken azterketak
Maiatzak	20	Azken ebaluaketa eta emaitzak WEB
Maiatzak/Ekainak	21-4	Unibertsitatera sartzeko froga prestatu
Ekainak	5-6-7	Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa (USE)
Maiatzak/Ekainak	21-18	Ez-ohiko deialdirako berrikasketa (ekainak 12, klase gabe)
Ekainak	19-20-21	Ez-ohiko deialdiko azterketak
Ekainak	24	Ez ohiko deialdiko ebaluaketa eta iritziak WEB

Oharrak:

- Iritziak ez dira telefonoz emango eta paperaz ere.
- Erreklamazio epea Batxilerrerako: notak argitaratzen direnetik, 48 orduko epea, idatziz zuzendariari.



1.5. IKASLEEN ORDUTEGIAK

• Eskola ordutegia

Hora

DBH eta BATXILERA 1. Egunero	8:00-15:25
BATXILER 2. Astelehen, astearta, asteazken eta ostegunak	8:00-15:25
Ostiralak	8:00-14:30

• Otordua

DBH 1., 2., 3. eta 4.	12:30
Batxiler 1. eta 2.	11:50

• Eskola Kirola eta Kultur Ekintzak

Hasiera	15:35
Amaiera	16:35

1.6. IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

• Ikasturtean zehar

Ordua

Idazkaritza, Administrazioa eta zerbitzuak (Batxiler eraikina)	8:30-16:00
---	------------

• Klase gabeko egunak

Ordua

Idazkaritza, Administrazioa eta zerbitzuak (Batxiler eraikina)	8:30-13:30 14:30-16:30
---	---------------------------



2. KOMUNIKAZIOA

2.1. ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Telefonoa: 94-4538007*



	Ordua	Lekua	Izena	Luzapena
Zuzendari-Gerentea	Eskola ordutegia	Batxiler eraikina	Idoia Iruretagoiena	302
Zuzendaritza idazkaritza	Eskola ordutegia	" "	—	302
Zerbitzu zuzendaria	16:00-16:30	" "	Izaskun Mujika	208

2.2. ZUZENDARITZA TALDEA ETA ETAPETAKO ARDURADUNAK

Telefonoa: 94-4710444*



	Eguna	Ordua	Lekua	Izena	E-mail
Zuzendari Pedagogikoa	Egunero	Eskola ord.	Batxiler eraikina	Zalao Gomez	gomezz@lauro.eus
DBHko Zuzendaria	Egunero	8:00-8:30	DBH eraikina	Jesus García	garciaj@lauro.eus
DBHko 1. zikloko koordinatzailea 1	Egunero	8:00-9:00	" De Lera	Fernando	deleraf@laurokastola.eus
DBHko 1. zikloko koordinatzailea 2	Egunero	10:30-11:30	"	Zunbeltz Fullaondo	fullaondo@laurokastola.eus
DBHko 2. zikloko koordinatzailea 1	Astelehen / asteazkena	8:00-9:00	"	Jon Andoni Gómez	gomezj@laurokastola.eus
DBHko 2. zikloko koordinatzailea 2	Astearte, ostegun, ostirala	8:00 -9:00	"	Yaiza Puente	puentey@laurokastola.eus
Batxilerreko Zuzendaria	Egunero	8:00-8:30	Batxiler eraikina	Zuriñe Serna	sernaz@lauro.eus
Batxiler Koordinatzailea	Astelehen / ostiraletan	11:00-11:30	" "	Beñat Gabiña	gabinab@laurokastola.eus
Idazkaritza akademikoa	Egunero	8:00-16:30	" "	—	—



2.3. BIGARREN HEZKUNTZAKO TUTOREAK

Telefona: 94-4710444

• DBHko tutoreak*



Maila	Tutorea	E-mail
1.	Josu Basterretxea Ainhoa Fernandez Maite Leizaola Pili Olaizola Joana Tejada Amaia Zeberio	basterretxeaj@lauroikastola.eus fernandez@lauroikastola.eus leizaolam@lauroikastola.eus olaizolap@lauroikastola.eus tejadaj@lauroikastola.eus zeberioa@lauroikastola.eus
2.	Eider Beitia Harold Garston Irati Momoitio Amaia Perez Ashley Rowe Unai Zaballa	beitiae@lauroikastola.eus garstonh@lauroikastola.eus momoitioi@lauroikastola.eus pereza@lauroikastola.eus rowea@lauroikastola.eus zaballau@lauroikastola.eus
3.	Leire Andikoetxea Nagore Barrera Nerea Diaz Gorka Lozano Erik Serna Idoia Ugalde	andikoetxeal@lauroikastola.eus barrenan@lauroikastola.eus diazn@lauroikastola.eus lozanog@lauroikastola.eus sernae@lauroikastola.eus ugaldei@lauroikastola.eus
4.	Koldo Monge Olatz Serna Aritz Treku Alain Undabarrena Ane Zarragoitia	mongek@lauroikastola.eus sernao@lauroikastola.eus trekua@lauroikastola.eus undabarrenaa@lauroikastola.eus zarragoitiaa@lauroikastola.eus

* Tutore eta ikasleen banaketa zehatza irailean komunikatuko dugu.

• Batxilerreko tutoreak*

Telefonoa: 94-4710444



Maila	Tutorea	E-mail
1.	Amagoia Elorza Eñaut Intxaurrega Nerea Loidi Iñaki Polo Ohiane Uriarte	elorzaa@lauroikastola.eus intxaurregae@lauroikastola.eus loidin@lauroikastola.eus poloi@lauroikastola.eus uriarteo@lauroikastola.eus
2.	Begoña Diez de Ulzurrun Esther Lafuente Iñigo Martinez Julia Miñaur	dulzurrunb@lauroikastola.eus lafuentee@lauroikastola.eus martinezi@lauroikastola.eus miñaurj@lauroikastola.eus

* Tutore eta ikasleen banaketa zehatza irailean komunikatuko dugu.

Tutore ez diren irakasleen posta helbideak, webean dituzue: FAMILIAK-ORIENTAZIOA.

2.4. TELEFONIA IRAKASLEEKIN

Irailean, irakasleen telefonia kuadro berriak jakinaraziko ditugu, ordutegi zehatzekin.

Ordutegi hau dei laburretarako da, lineak ez okupatzeko eta ahalik eta dei gehien hartzeko.

Komunikazioa irakasleekin ekainaren 13tik 30era: e-posta.

Telefonoa: 94-4710444



2.5. IRAKASLEEKIN ELKARRIZKETAK, ASTEARTEETAN



MAILA	HILAB.	EGUNA	ORDUA	SISTEMA
DBH ETA BATXILER	Urriak	23	15:35 - 17:30	Aurretiko ordua
	Azaroak	6	"	" "
	Abenduan	11	"	" "
	Urtarrilak	15	"	" "
	Otsailak	19	"	" "
	Martxoak	12	"	" "
	Apirilak	9	"	" "
	Maiatzak	7	"	" "
	Ekainak	27	14:30 - 17:30	Etorri ahala
	Ekainak	28	11:30 - 13:30	" "

Oharra:

Aipatutako egun eta orduetan gurasoren bati etortzea ezinezkoa gertatuz gero, dagokion irakasleak elkarrizketatzeko aukera emango dio, salbuespena eginez, ordua aurretiaz eskatuz gero, idatziz, telefonoz edo posta elektronikoz.





3. GURASOENTZAT INFORMAZIO BILERA

3.1. IKASTURTE AURKEZPENAK:

Batxiler 1. maila	Irailak	17
Batxiler 2. maila	"	17
DBH 3. eta 4.	"	18
DBH 1. eta 2.	"	25

3.2. GURASO TALDEENTZAT ORIENTABIDE SAIOAK:

- Teknologia berriak
- Heziketa sexuala
- Drogen kontsumoaren prebentzioa
- Unibertsitateetako graduak
- Metodologia berrien aplikazioa

Jakinaraziko da.

3.3. AURKEZPENAK: PROGRAMA OROKORRA ETA ETAPETAKO KURRIKULUMAK:

Batxiler 1. mailako familiak 2. mailarako	Apirilak	30
DBH 2-3 DBH 3-4rako	Maiatzak	7
DBH 4.tik Batxiler 1erako familiak	Maiatzak	2

• DBH eta Batxilerreko ikasleek aurre-matrikula egiteko egunak

Maiatzean zehar, hitzaldien ondoren, aukerako irakasgaien izen-ematea ALEXIA bidez egingo da.

Aurre matrikulako datu hauek konfirmatuta daudenean, Ikastolako Idazkaritzan Batxilerreko matrikula ofiziala egingo dugu, uztailean.





4. ZERBITZUAK

4.1. GARRAIO ZERBITZUA

• Zerbitzuko jarraibideak:

1. Garraio-zerbitzua ikasturte osorako kontratatzen da, eta 8:00etako sarrera eta 15:30ko irteera (Batxiler, 14:30etan ostiraletan) hartzen ditu barne, ikasleak Eskola Kirola, Kultur ekintzak edota Hizkuntzak dituenean izan ezik.
2. Zerbitzuko aldaketa zehatzak justifikatutako arrazoiengatik eta zerbitzuko arduradunek onartu ondoren baimenduko dira; betiere, eskatutako autobusean plaza bermaturik badago, Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan izan ezik, segurtasun arrazoiengatik. Dagoeneko kontratatuta dagoen zerbitzuari gehituko zaio zerbitzu hori, eta ordainagiri bidez ordainduko da. DBHko ikasleek zuzendariarengana joko dute baimen hau eskatzera.
3. Ikasle bakoitzak ikasturtearen hasieran berariaz izendatuko zaizkion autobus- eta eserleku-zenbakiak erabiliko ditu bakarrik. Eserita egongo da, autobusa martxan dagoen artean.
4. Ikasleek segurtasun-uhala lotu beharko dute. Lotuta ez badaramate, litekeen trafikoko izunaren kargu egin beharko dira.
5. Ikasleek behar bezala errespetatuko eta erabiliko dituzte autobuseko ondasunak eta haien eserlekua modu egokian erabiltzearen eta egoera onean egotearen erantzule izango dira, eserlekua erabili ez badute ere. Kalteren bat aurkituz gero, zaintzaileari edo hurbilen dagoen Lauroko arduradunari jakinarazi beharko diote lehenbailehen.
6. Arduraduna, ikaskideak eta gidaria errespetuz tratatuko dira, eta ezingo da azken horrekin hitz egin gidatzen ari den bitartean. Zerbitzuko arduradunek adierazitako jokabide-arauei jarraituko zaie, eta ez da onartuko inola ere bizikidetzako arauak hausten dituen jarrearik.
7. Ibilbidean zehar, zuzentasunez jokatuko da, gizarte-arau egokiak gordez. Ezin da jan ez edan autobusean.
8. Bigarren Hezkuntzako ikasleek ezin dute iPad edota telefonoa erabili Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak daudenean.
9. Ikastolara iristean eta handik irtetean, laster joan beharko dute haien helmugara, betiere zerbitzuko arduradunen oharra eta orientazioak errespetatuz.
10. Ikastolara iristeko edo handik joateko auto pribatuak erabiliz gero, ezingo da trafikoa eta autobusen aparkalekua oztopatu, eta garraioko arduradunen adierazpenak errespetatu beharko dira.
11. Trafikoan arazorik egonez gero, ondoren egin behar den Haur eta Lehen Hezkuntzako izteeraren segurtasuna bermatzeko. Bigarren Hezkuntzako ibilbideak puntu batean elkartu ahal izango dira, adin honetako ikasleek heldutasun nahikoa baidute etxera bakarrik joateko.

(Erreferentzia: Barne Araudia)

• **Ibilbideak:**

Bus zenbakia eta geltokia

Goizez

Arratsaldez (Laurotik irteera 15:33-15:35)

1	<ol style="list-style-type: none"> 1. Barakaldo (Landeta / bus gelt.) 2. Basurto-Estación FEVE (Bus geltokia) 3. Avda. Ferrocarril (BBK) 4. Gordoniz 39 	<p>7:10 7:20</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Barakaldo (Landeta / bus gelt.) 2. Basurto-Estación FEVE (Bus geltokia) 3. Autonomia 43 Bodegon
2	<ol style="list-style-type: none"> 1- Ald. Urkijo ,68 (Bus geltokia) 2. Ald. Urkijo, 94 (Bus geltokia) 	7:30	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ald. Urkijo ,68 (Bus geltokia) 2. Ald. Urkijo, 94 (Bus geltokia)
3	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gran Via, 63 (bus gelt) 2. Gran Via,41 (Bus geltokia) 3. Museo,1/Henao (Bus geltokia) 	7:25	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gran Via, 63 (bus gelt) 2. Gran Via,41 (Bus geltokia) 3. Museo,1/Henao (Bus geltokia)
4	<ol style="list-style-type: none"> 1. San Adrian, 2 (Bus geltokia) 2. Autonomia, 2 (Bus geltokia) 3. Iparraguirre, 63 (Bus geltokia) 4. Erandio Goikoa (Eliza Bus gelt) 	7:15	<ol style="list-style-type: none"> 1. Erandio Goikoa (Eliza) 2. Juan de Garay 3. Autonomia, 2 (Bus geltokia) 4. Autonomia, 22 (Bus geltokia)
5	<ol style="list-style-type: none"> 1. Alda. Mazarredo, 5 (Bus gelt) 2. Ald. Urkijo ,16 (Correos / Instituto- Bus geltokia) 3. Loiu (Eliza bus gelt) 	7:25	<ol style="list-style-type: none"> 1. Loiu (Eliza bus gelt) 2. Alda. Mazarredo, 5 (Bus gelt) 3. Ald. Urkijo ,16 (Correos / Instituto- Bus geltokia)
6	<ol style="list-style-type: none"> 1. Santos Juanes,7 (Bus geltokia) 2. Vda.Epalza/San Nikolas (Bus geltokia) 3. Udaletxea 4. Plz. La Salve (Bus geltokia) 	7:20	<ol style="list-style-type: none"> 1. Plz. La Salve (Bus geltokia) 2. Vda.Epalza/San Nikolas (Bus geltokia)
7	<ol style="list-style-type: none"> 1. Txomin Garat,9 (Bus geltokia) 2. Santa Clara, 2 (Bus geltokia) 3. Avd.Zumalakarregi, 105 (Bus geltokia) 4. Ald. Rekalde,14 (Bus geltokia) 5. Landatxueta 	7:20	<ol style="list-style-type: none"> 1. Landatxueta 2. Ald. Rekalde,14 3. Avd.Zumalakarregi, 105 4. Txomin Garat,9 5. Santa Clara, 2
8	<ol style="list-style-type: none"> 1. C.Volantin,23 Zubizuri (Bus geltokia) 2. San Pedro (Bus geltokia) 3. Lehend. Agirre, 42 (Bus geltokia) 4. Lehend. Agirre, 89 (Sarriko Metroa) 5. Lehendakari Aguirre,172 levante enparantza 	7:20	<ol style="list-style-type: none"> 1. Lehend. Agirre, 181 (Bus geltokia) 2. Lehend. Agirre, 81 (Bus geltokia) 3. Lehend. Agirre 33 (Bus geltokia) 4. San Pedro (Hizkuntza eskola) 5. Campo Volantín, 23 Zubizuri

<i>Bus zenbakia eta geltokia</i>	<i>Goizez</i>	<i>Arratsaldez (Laurotik irteera 15:35)</i>
9 1. Erandio errepede (bote Bus geltokia) 2. Areetako Etorbidea (Bizkaia Zubia) 3. Kale Nagusia,34 (Metro Bus geltokia) 4. Dr.Libano Leioa 5. Leioa (Elexalde Las Flores)	7:10	1. Erandio errepede (bote Bus geltokia) 2. Areetako Etorbidea (Bizkaia Zubia) 3. Kale Nagusia,34 (Metro Bus geltokia) 4. Dr.Libano Leioa 5. Leioa (p.bus bajada Ayuntamiento)
10 1. Gabriel Ramos Uranga (Bus gelt) 2. Andrés Cortina, 2 / Algortako Etorb 3. Algortako Etor. 74 (casino Bus gelt.) 4. Algortako Etor. 32 (S.Ignacio Bus gelt) 5. Leioa Aldekoena (bus gelt)	7:15	1. Leioa Aldekoena 2. Algortako Etor,32 (Udaletxe Bus gelt) 3. Algortako Etor,74 (gasolindegi Bus gelt.) 4. Telletxe kalea, 2 (Metro Algorta) 5. Gabriel Ramos Uranga
11 1. Avd.del Angel, 47 (Bus geltokia) 2. Bidezabal (Anbulategia bus gelt) 3. Sarrikobaso (Venancios Bus geltokia) 4. Leioa (Elexalde Las Flores)	7:15	1. Leioa-P. Bus bajada Ayuntamiento 2. Sarrikobaso (Venancios Bus geltokia) 3. Bidezabal (Anbulategia bus gelt) 4. Avd.del Angel, 34 (Bus geltokia)
12 1. Makaleta, 93 2. Makaleta Et. 35 (Bus gelt) 3. Avanzada,28 (Ant.Golf Bus gelt.) 4. Negurigane, 1 (Sanitas Bus geltokia)	7:15	1. Negurigane, 2 (Sanitas aurean Bus geltokia) 2. Avanzada,11 (Ant.Golf Bus gelt.) 3. Makaleta, 22 4. Oiarretxe,8
13 1. La Bilbaina ("Club de Campo"ko atzeko geltokian) 7:15 2. Mungia (INEM) 3. Mungia (Olerkari kalea, bus geltoki) 4. Gatika Eliza (Bus geltokia)		1. Gatika Eliza (Bus geltokia) 2. Mungia (INEM) 3. Mungia (Olerkari kalea, bus geltoki) 4. La Bilbaina ("Club de Campo"ko atzeko geltokian)
14 1. Lezama (Ayto. Bus gelt/Garaioltza nº 1) 2. Zamudio (Batzoki) 3. Derio (Mungialde etorbidea 4 – Aldekone) 4. Sondika (Txorierri 3 Bus geltokia)	7:15	1.-Sondika Txorierri 16 2. Derio (Mungialde etorbidea 4 – Aldekone) 3. Txorierri etorbide,12 (BM aurean)espezionalki 4. Zamudio (Txorierri 1) 5. Lezama (Garaioltza 1)
15 1. Berango (Moreaga kalea bus gelt) 2. Sopelana (Iglesia Bus geltokia) 3. Laukiniz (plazako bus gelt)	7:20	1. Laukiniz (plazako bus gelt) 2. Sopelana (Eliza Bus geltokia) 3. Berango (Moreaga kalea bus gelt)

• **Bigarren Batxilerreko bus zerbitzu berezia ostiraletan:**

- 1**
1. Landatxueta
 2. Autonomia, 53
 3. Plaza Circular RENFE
 4. Gran Vía, 41
 5. San Pedro (Hizkuntza eskola)
 6. Sarriko Don Bosco biribilgunea

- 2**
1. Sondika Txorierrri,16
 2. Derio
 3. Lezama
 4. La Bilbaina
 5. Mungia

- 3**
1. Erandio Goikoa
 2. Leioa
 3. Areeta Metroa
 4. Algorta Metroa
 5. Bidezabal
 6. Berango



• **Bus zerbitzu publikoa - Bizkaibus Bilbo-Loiu (A2153)**
Tlfn.: 902 222 265
www.bizkaia.eus

Ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: Bilbotik edo Loiutik 7:00etan irtenda, orduro, 22:00ak arte.
- Larunbata, igandeak eta jai-egunak: Loiutik 7:00etan eta Bilbotik 8:00etan irtenda, bi orduro, 22:00ak arte.

Ibilbidea:

San José, Elkano 5.	Loiu, eliza.
Arte Ederretako Museoa.	Landatxueta.
Unibertsitatea, Pl. San Pío X.	Loiuko Feriala.
San Pedro enparantza (Deusto).	Larrakoetxe.
Ibarrekolanda, Enekuri 28.	Lauroeta, 7 (Urdaneta).
Enekuri gana.	Lauro Ikastola / Munabe.
Fano.	San Migeleko eliza.
Asua, Kateak.	

Oharra:

Batxilerreko ikasleek baimena izango dute zerbitzu publiko hau erabiltzeko azken ebaluazio egunetan, hautafrogak prestatzeko edo berrikasketarako egunetan. Gurasoen baimen idatzia zein posta elektronikoa etapako zuzendariordeari zuzendu beharko zaio.

4.2. JANTOKIA

Lauro Ikastolako jantoki zerbitzuak **ikastetxe bati dagozkion menuak** eskaintzen ditu.

Menu bereziak prestatzen ditugu osasun-arazoak dituzten ikasleentzako, eta agiri medikoaren bidez eskatu behar dira. **Menu barazkijalea** ere eskaintzen dugu, dieta hau osotasunean betetzen duten ikasleentzat, euren sinesmen erlijioso edota aukera etikoei erantzuteko. Honetarako gurasoek eta ikasleak sinatutako agiri bat bidali behar dute, eskaria eginez eta arrazoia adieraziz, osasun-arazoak dituzten ikasleen eskubideak ere bermatu nahi ditugulako.



• Helburuak:

- Bizitza osasuntsua izateko elikadura osasungarria behar izateari buruz sentiberatzea.
- Elikagaiak pertsona guztientzako beharrezkoak direla eta urriak direla jabetzea.
- Mahaian higiene-ohitura eta gizarte-arau egokiak hartzea eta praktikatzea.
- Etxeko lanei begira jarrera positiboak hartzea eta, era berean, jantokiko lan zehatz eta espezifikotan parte hartzea.
- Munduko herritar bat dela jabetzen laguntzea eta mugak eta egon daitezkeen arriskuak ezagutzea.
- Beharrezkoak ez diren hondakinak ez direla sortu behar ohartzea.

• Arau nagusiak:

1. Zerbitzua ikasturte osorako kontratatzen da eta bakarrik da hautazkoa Batxilerrean.
2. Aldez aurreko baimenik gabe zerbitzua erabiltzen duten Batxilergoko ikasleek hilabeteko zerbitzu osoa ordainduko dute.
3. Ikasleak irakasle arduradunarekin joango dira jantokira.

4. Ikasleei eserleku bana izendatuko zaie jantokian. Aldaketaren bat egiteko, zikloko koordinatzailearen baimena beharko da.
5. Ikasle bakoitzak zainduko ditu erabiltzen dituen mahai-tresnak, mahaia, aulkia eta gunea, eta bera arduratuko da horiek behar bezala erabiltzeaz eta egoera onean egoteaz.
6. Ikasleak bere mahaitik jaiki behar badu, baimena eskatu beharko dio jantokiko arduradunari.
7. Elikagai guztiak horretarako jarritako lekuan kontsumitu behar dira, eta ezingo dira inola ere kanpora atera edo modu desegokian erabili. Zerbitzutatukoaren erdia jan dezaten animatuko zaie ikasleei. Ikasleek eskatuz gero, janari gehiago zerbitzatuko zaie.
8. Debekatuta dago kanpoko janaria jantokira ekartzea.
9. Jantokian dauden bitartean, ikasleek jarrera egokia izan beharko dute. Zaintzaileek adierazten dutenean irtengo dira ikasleak jantokitik; txandaka irtengo dira, jarrera egokiarekin.

10. Ikasleek jantokiko arduradunen azalpenei jarraituko diete, eta zor zaien errespetuz hitz egingo dute haiekin.
11. Guztiek errespetatu beharko dituzte jantokiko ordutegiak.
12. Ikasleen ohiturak ez nahasteko, garrantzitsua da gozokiak edo antzekoak saihestea.
13. Ikasle bakoitzak ikasturtearen hasieran agintzen zaizkion jantokiko lan zehatzak egin behar ditu.

(Erreferentzia: Barne Araudia)

4.3. TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA EGOKIA

- DBHn debekatuta dago telefono mugikorra. Ekartzekotan, amatatuta eta motxilan gordeta egon behar da. Batxilerrean, mugikorrak amatatuta egon behar dira saio lektiboetan.
- Entzuteko gailuak itzalita edo gordeta egon beharko dute, irakasleak horiek erabiltzeko baimena ematen duenean salbu. Garraio zerbitzuetan eta Ikastolako espazio komunetan, gailu hauek bakarrik entzungailuak jarrita erabili ahal izango dira, gainerakoak ez gogaitzeko.
- iPad-ak: ikasturte hasieran, ikasleek etxera emango dute iPad erabileraren protokoloa. Adi irakurri eta sinatuta behar da. iPad gailuek kontrolerako bi aplikazio dituzte: Meraki eta Lazarus.
- iPad protokoloa ez errespetatzeagatik sortu ahal diren konpontzeko beharrak fakturatuko dira.

4.4. TAKILAK

Ikasleen arropa, motxila/poltsa eta bestelako jabetzak izen-deiturez identifikatuta egon daitezela gomendatzen dizuegu.

- Ikasle bakoitzak bere takila izango du: DBHn, giltzarapoarekin; eta Batxilerrean, klabearekin.
- DBHrako giltzarrapoa DBHko 1. mailan banatzen da eta lau ikasturterako da. Galdu eta apurtuz gero, beste giltzarra bat eman eta fakturatuko da.
- Takila itxita egon behar da, eta giltzarra jarrita. Motxila takila barruan gorde behar da beti. Arduradunek zabaldu ahal izango dute mantenu lanetarako edota behar izanez gero. Ondoan, esekitoki bana izango dute bakarrik jakak eta kirol poltsa txikiak (portabotas) eskegitzeko.
- Ikasle bakoitza bere kutxatila erantzule izango da, eta apurketa ordaindu beharko du, berau erabilera desegokiagatik denean. Apurketa bat duenean, zikloko koordinatzaile informatu beharko du, jolas-torduen bere bulegora joan eta dagokion inprimakia betetz. Giltzarra eman beharko du.



4.5. GURASOEN SARRERA DBH-KO ERAIKINERA

- Seme-alabari materialen bat eman behar dion gurasoa ez da zuzenean geletara joango: etapa Zuzendari, atezain edo Liburutegira jo beharko du lehenengo.
- Arratsaldean ahaztutako zer edo zeren bila etortzekotan: atezainarekin kontaktuan jarri berak lagundu eta dagokion prozedura betetzeko.

5. ELKARBIZITZARAKO ARAUAK

5.1. LAURO IKASTOLAKO ELKARBIZITZARAKO ARAUAK, WWW.LAUROIKASTOLA.EUS GUNEAN:

- 201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
- Lauro Ikastolako Barne Araudia (BA), VI. Titulua: Ikasleak.
- Elkarbizitzarako arauak: ikastolan, ikasketa bidaia, udako irtenaldiak, baratze-eskola egonaldiak, etab. ikasleen eskubide-betebeharren 201/2008 dekretuaren arabera.
- Eskola ibilbide amaierako bidaiaren araudia.



5.2. ELKARBIZITZA ARAUAK JANTOKI ETA BUSE-TAN

Jantokia eta autobusak eskola-espazioak dira eta bertan Lauro Ikastolako elkarbizitza arauak indarrean daude.

DBHn jantoki eta garraio inzidentziak Alexian islatu-ko dira (ikus 44 orrialdea).

Buseko ondasunak errespetatu eta behar bezala erabiliko dira. Ikaslea egokitutako jesarlekuaren arduraduna da eta kalte edo tratu ezegokiagatik kalte- tuz gero, konponketa ordainduko du.

5.3. INZIDENTZIEN KUDEAKETA

BATXILER

Batxiler etapan ere seme-alaben asistentzia falta **guztiak** tutoreari komunikatu behar zaizkio, ahalik eta arinen, tutoreak ere Alexian justifika ditzan. E-posta bidali behar diozue tutoreari asistentzia faltaren arrazoia azalduz:

- Gaixotasuna.
- Medikuearengana edo antzerakoa.
- Bidaia.
- Etab.

Justifikatzen ez diren faltak eskola-absentismoa dira eta honek esan nahi du gurasook onartzen dutela ikas- tetxetik kanpo dagoen momentutik, Ikastolak ez duela seme-alabarekiko erantzukizunik.



Asteartero sistemak emaila bidaltzen die familiei ikasleak hauetariko intzidentzia bat jaso badu:

- Ausentzia.
- Klasera berandu heldu.
- Ipad-a txarto erabili.
- Heziketa fisikoko arroparik ez ekarri.

Familiak lehen motako inzidentziak bakarrik justifikatu ditzakete, Ausentziak, tutoreari mezu bat bidaliz.

DBH

Ikasturte aurkezpenetan azaldu zenez, **DBHn** inzidentzien kudeaketa Alexia plataformaren bidez egiten dugu. Asteartero sistemak emaila bidaltzen die familiei ikasleak hauetariko intzidentzia bat jaso badu:

- Ausentzia.*
- Klasera berandu heldu.

- iPad-aren erabilera desegokia.
- Irakasleen oharrak: etxerako lanak, jarrera, epeak ez betetzea, etab.
- Heziketa fisikoko arroparik ez ekarri.
- Jantokia: jarrera desegokia.
- Garraioa: jarrera desegokia.

* Familiak lehen motako inzidentziak bakarrik justifikatu ditzakete: **Ausentzia**. Ikaslea Ikastolara ez bada bertaratu, **inzidentzia hori familiek justifikatu beharko dute** Alexia plataforman arrazoia idatziz.

Familiak alde zuzenetik ausentziaren bat aurreikusten badu, horren berri ere eman ahal izango du, eta gero tutoreak onartu beharko du. Familiak ez badu ausentzia horren justifikaziorik idatzi, Alexian agertuko dira eta mezua bidaliko da asteartean. Hamabost eguneko epean tutoreek beraien taldeen falten erreposoa egingo dute Alexian eta onargarriak diren justifikazioak onartuko dituzte.

Hona hemen **Ausentziak** nola justifikatu behar diren:

1. Dagokion ikaslearen "**Justifikatu**" atala aukeratu.
2. Justifikatu nahi dugun falta aukeratu.
3. Sakatu justifikatzeko botoiari.
4. Idatzi "Oharraren just." atalean falta horren justifikazioa. Gero tutoreak justifikazioa onartuko du edo ez.
5. Botoi urdina: "Berria gehitu" atalean aurreikusten duzuen ausentzia bat idatzi dezakezue.

Seme-alabak Ikastolatik alde egin behar badu eta ezin duzue bila etorri, bus publikoa erabili ahal izango du, tutoreari idatzizko baimena bidaliz.



6. ETXERAKO NORBERAREN LANETARAKO JARRAIBIDEAK

Lekua eta giroa garrantzitsuak dira

1. Garrantzitsua da beti leku berdinean lan egitea.
2. Lan lekuak baldintza hauek bete behar ditu:
 - Kontzentrazioa lortzen lagundu behar du. Jendea joan-etorrian edo zaratak (TV-irratia) dauden lekutan ezin da ikasi.
 - Garrantzitsua da gela eta mahaia ordenaturik egotea: ikasteko behar dena bakar-bakarrik egon behar du.
 - Argitasun nahikoa egon behar da, naturala ahal bada.
3. Ikasmahai bat edukitzea da onena.

Zein da ikasteko unerik onena?

Beti ordu berdinetan, ikasteko ohitura hartzeko.

Egunero, eskola ondoren, arratsaldez.

Ez dira une egokiak otordu ondorenak edota ahalegin fisiko gogorren ondorengo orduak.

Nola antolatu eguneroko lana?

Egunero lanean hastean, ahalegina ondorengo puntu hauen arabera banatzea beharrezkoa da:

- ikasgaien zailtasuna;
- ariketa moduak eta sortzen duten nekea;
- atsedenaldiak eta gaiez aldatu beharra.

Planifikazioa:

1. Atsegina edo erraza den gai batekin hasi.
2. **Atsedenaldi laburra:** bost minutu.
3. Ondoren gairik zailena edo gogorrena.
4. **Luzexeagoa den atsedenaldia:** hamabost minutu.
5. Ariketarik errazena eginez amaitu, gaien baten berrikusketa, hurrengo egunean ikusiko diren gaiei begirada bat, irakurketa, etab.

Garrantzitsua da 10 minuturo ez altxatzea (borragoma, askaria, anai-arrebengana,...).



7. ESKOLA KIROLA ETA KULTUR EKINTZAK

Behecosloa XXI, SLU
Tlfn.: 94-4711610
E-mail: info@behekosoloaxxi.com



7.1. HELBURUA

- Jarduera hauen xedea izango da bertako hezkuntzarena osatzea, ikasleen giza heziketa eta oso-osoko heziketa sustatzea, bai eta Ikastolako Hezkuntza Proiektuko edukiak eta bertako planen helburuak hobeto lortzea ere, osasunaren eta bizimodu osasungariaren erreferentzia hartuta eta pertsonen arteko harremanen bidez lortzen den kohesio sozialaren bidez.
- Bazkide eta ikasle guztien partaidetza-eskariak asetetzen saiatuko da Ikastola, hala bada, eskaintako jarduera guztietan; eta ez du ezein interesdunik baztertuko, baldin eta interesdun horren konpromisoa bada Kooperatibako gidalerroak eta hezkuntzabalioak garatzea eta horien barruan jokatzeko.
- Lauro Ikastolako kirol-jardueretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren programako printzipioei jarraituko zaie, eta Ikastolak, Aldundiak antolatzen dituen txapelketetan parte hartuko du. Aldundiak

zehaztutako hiru ibilbideak bermatuko dira, betiere kontuan hartuta Ikastolak zer baliabide dituen eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginda.

(Erreferentzia: barne Araudia)



7.2. EGUTEGIA ETA PLANA

Monitoreen prestakuntza	Irailak	18-26
Hasiera	Irailak	27
Amaiera	Maiatzak	31

WEBgunean:

- Ikasturteko plana
- Arauak
- Taldeak eratzeko irizpideak
- Baja/aldaketa eskaera (matrikulako epe kanporako)
- Kirol arropa



7.3. MATRIKULA

Hurrengo ikasturterako matrikula ALEXIA bidez egingo da.

7.4. AUTOBUSA

Eskolaz kanpoko busa ekintzetako ikasleentzat da soilik, eta jarduera duten egunetarako bakarrik.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek Lehen Hezkuntzakoek 16:30eko zerbitzuan libre uzten dituzten lekuak erabiliko dituzte. Egokiketaren bat eginez gero, ikasleak sasoi informatuko ditugu.

Ostiraletan entrenatzen duten Bigarren Hezkuntzako ikasleek ezin izango dute Ikastolako 16:30eko autobusa erabili, espreski eskatuta eta ordainduta ez bada.

Abuztu eta irailean aurrendenboraldia duten Bigarren Hezkuntzako kirol-taldeek ez dute BUS zerbitzurik.

Ohiko bus zerbitzua erabiltzen ez duten ikasleek, eskolaz kanpoko erabiliz gero, hileko osagarri bat ordainduko dute zerbitzu honetarako.

7.5. IGERILEKUETAKO ARAUAK

Instalazioak bi igerileku ditu: handi bat, gehienez 104 erabiltzailerentzat, eta txiki bat, 16rentzat; azken hau, 6 urtetik beherakoentzat eta euren arduradunentzat soi-

lik, igeriketan ikastekoa izanik. Bietako uraren ezaugarriak umeen azal, begi eta abarren berezitasunetara egokitzen dira.

Bainu eremura sartzeko gaixotasunen bat dutenen sarrera, bertako arduradunek baldintzako dute, kutsagarriak badira eta horien artean bereziki azaleko gaitzak, gripea, katarroa eta antzekoak.

Uraren kalitatea hoberena izan dadin, baita instalazio osoarena ere, denon laguntza ezinbestekoa da.

Bete beharreko araudia

- **Debekuak:**
 - Ez sartu kaleko arropa eta oinetakoak jantzita bainu-eremuan.
 - Ez edan, ez jan, ezta txiklerik ere ahoan, bainu-eremuan.
 - Ez animaliarik sartu instalazio osoan.
 - Ez utzi hondakinik.
- **Bainu eremuan sartu aurretik:**
 - Erabili bakoitzak norberaren txankleta zein ur-galtzerdiak, igerileku eta aldageletan bakarrik erabiltzekoak eta garbiak.
 - Dutzatu. Xaboa erabili, arduradunek hala baderitzote, krema, desodorante eta bestelako hondakinak kentzeko.
 - Komunera joan, beharizan horiek kontrolatzeko.
 - Kendu apositoak (tiritak, esparatrapuak etab.)

- **Bainatzean:**

- Erabili ile guztia batzen eta estaltzen duen txanoa. Ez kendu uretan.
- Ez jarri toailak lurrean, bertoko kutsagarriak ekiditzeko.
- Ez zintz egin edota txisturik bota uretan.
- 6 urtetik gorakoek ez dute igerileku txikia erabiliko, arduradunak ez badira.

7.6. ESKOLAZ KANPOKO ORDUTEGIAN JOLASTOKIETARA ETA KIROL-INSTALAZIOETARA SARTZEA ETA HORIEK ERABILTZEA

Lauro Ikastolak ez du hartuko bere gain eskolaz kanpoko ordutegian jolastokietara eta kirol-instalazioetara sartzean eta horiek erabiltzean gertatutako jazoeren erantzukizuna.

7.7. KIROL ARETOKO ARAUAK:

- Familiak ezin dira aretoan sartu entrenu eta lehiaketak dauden bitartean.
- Ezin da ez jan ezta edan ere.
- Ikustokia: ikusleak armailetan jesarrita egongo dira eta ez zutunik.

Arauok betetzen ez dituzten erabiltzaileei instalazioen erabilera debekatuko zaie, kasu bakoitzean dagozkion beste zigor-neurriak aplikatuz.



8. ZER EGINGO DUT...?

Tutorea batekin telefonoz hitz egitea zaila gertatzen bazait?

Seme-alabak, autobusean, arropa edo materialen bat galdu badu?

Nire seme-alabak arroparen bat galdu du Ikastolan

Seme-alabak busa galdu du ikastolatik irteteen. Nora joan behar da?

Autobusean aldaketa bat egin nahi badut?

Jantokiaren inguruan eskaera bat egin behar badut? (dieta bereziak, ...)

Eskola Kirola edo Kultur Ekintzen inguruan hitz egin behar badut?

Seme-alabak istripu bat izan badu eskola-ordutegian eta, etxera heltzerakoan, mediku-harreta behar badu?

Ez baduzue zehaztutako telefonian orduan aurkitu, utzi zure mezua Idazkaritzan edo bidali egiozu posta elektronikoa: tutoreen helbideak argitalpen honetako 32 eta 33. orrialdean eta WEB orrialdean daude.

Galdetu buseko gidariari.

DBH edo Batxilerreko atezainari galdetu behar dio edota bere mailako koordinatzaileari

Ikastolako atezainak bus geltokietan egoten dira eta euren gana jo behar du

Behin-betiko aldaketak: ikasturte berri bati begira, behin-betiko aldaketarik egin behar bada (etxe aldaketak,...), eskaera maiatzaren 15a baino lehen bidali behar da, idatziz: zerbitzuak@lauro.eus.

Bidali, idatziz, zerbitzu honen arduradunari: zerbitzuak@lauro.eus

Deitu Behekosolora, arratsalde: 944711610; edo bidali posta elektronikoa:
Kirolak: info@behekosoloaxxi.com
Kulturalak: urbanop@lauroikastola.eus

Asistentzia ondoko telefonoan eskatu behar da: 902 108 609. Lauroko poliza zenbakia adierazi behar da: 37321714. Erreferentzia zenbaki bat emango dizuete Ikastolako Erizainari emateko. Zentru medikora joateko konfirmazioa emango dizuete (Clinica Quirón).

Esaiozue bertan hartzen zaituzten pertsonari Lauro Ikastolatik zoaztela eta bolantea helaraziko zaiela. Hurrengo egunean, esaiozue Ikastolako Erizainari berak tramiteak bete ditzan: 94 4710443, 207 luzapena edo 94 4538007.

Seme-alabak istripu bat izan badu Eskola Kirola egiterakoan eta mediku-harreta behar badu?

Ezagun batek Laurori buruzko informazioa nahi badu, matrikulazioan interesatua dagoelako, norengana jo behar du?

Datu pertsonalen aldaketa egin behar badut?

Lauro Ikastolako Errektore Kontseiluarekin kontaktuan jarri nahi badut?

Lauro Ikastolako Zuzendaritza Pedagogiko edo Gerentziarekin kontaktuan jarri nahi badut?

Iradokizun/erreklamazio bat bidali nahi badut Ikastolara?

Aurretik azaldutako prozedura berbera jarraitu dezakezue. Kirol-talde federatu batean parte hartzen badu, jakinarazi baita ere Eskola Kiroleko arduradunari: 944711610 edo info@behekosoloxia.com

Zuzendaritza Idazkaritzara deitu behar du eta matrikulako arduradunaz galdetu: 944538007, 302 luzapena. Berak azalduko dizkio familia interesatuentzako informazio eta matrikularako prozesuak. DBH eta Batxilerrean gelako ikasle kopurua handiagoa denez, badugu plazarik etapa hauetan.

Datu pertsonalen aldaketak idatziz komunikatu behar dira beti: eskatu horretarako orria Zuzendaritza Idazkaritzan (Batxilergoko eraikina) edo bidali mezua zuzend_idazkaritza@lauro.eus

Posta elektronikoa idatzi dezakezu: ek@lauro.eus

Idatzi zuzend_idazkaritza@lauro.eus posta elektronikora.

Idatzi mezu bat Idazkaritza orokorena eta dagokion arduradunari bideratuko zaio: zuzend_idazkaritza@lauro.eus edo sakatu "Iradokizunak eta kexak" webgunean.



Gogoratzen dizuegu tabakoaren kontrako osasun-neurriak ezartzen dituen 28/2005 legeak guztiz debekatzen duela ikas-tetxe eta euren instalazioetan erretzea: jolastokiak, kirol zelaiak eta pistak, ikustokiak, etab.

1/2016 Legearen arabera guztiz debekatuta dago Ikastolako eta Behekosoloko instalazioetan alkoholdun edariak erosi edo kontsumitzea.